

«Esprintean ez naiz inoiz sartu:  
lasterketa denetan ihes egin dut»



ANGEL BILBAO  
GORRITXU  
Txirrindulari  
beteranoa

# hiruka

122. zenbakia

2018ko apirilaren 12tik 18ra arte

ERANDIOKO HAPO-A | 4

## IRADOKIZUNAK EGIN DITUZTE ERAGILEEK

Joan den urtarrilean aurkeztu zuten Erandioko Hiri Antolamendu Plan Orokorren hastapena. Daborduko lehen fasea itxi dute.

ZORU PUBLIKOAREN ERABILERA PLENTZIAN | 6

## UDALAK ORDENANTZAK AZTERTUKO DITU

Independenteak taldeak tasa bi ezarri gura izatea deitoratu du Plentziako Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak.

BARRIKAKO ARANBALTZA | 7

## NEANDERTALEK EGURREZ EGINDAKO LANABESA

Orain dela 90.000 urte hagin-egurrez egindako erreminta bat aurkitu dute arkeologoek Barrikako aztarnategian.

LITEROHITURA IRAKURLE-TALDEA | 10

## EUSKARAZ IRAKURTZEA SUSTATU GURAN

Apirilaren 18an Arantza Iturberen *Ai, ama!* liburuaz berba egingo dute, 19:30etik aurrera, Plentziako Kasinoan.



# Bertoko basoa berreskura liteke?

Bizkaiko baso-eremuen hiru laurden kanpoko espezieek betetzen dute, pinuek eta eukaliptoek batez ere. Orain, bertoko basoa berreskuratu guran dabil Kolore Guztietako Basoak plataforma. Uribe Kostan eukaliptadiak dira zuhaiztien erdia baino gehitxoago.



# Eukaliptoek soildutako basoak dibertsitatea itzultzea herria

**Kolore Guztietako Basoak plataforma iaz sortu zen, Bizkaiko basoak biziberritzeko asmoagaz. Bertoko espezieak gutxitzearen kaltea azpimarratu dute; egurra ekoizteko landatutako kanpoko espezieek kendu diete lekua. Uribe Kosta ez da salbuespena: eukaliptoek dira gure basoen erdiak.**

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIAK: HODEI TORRES INFOGRAFIA: ARTEFAKTO ▶


Lehenengoz *Pinus radiata* Bizkaira heldu zenetik, 1857an, baserri askotako teilatuak eta etxebizitza askotarako diru-sarrerak ordaindu dira zuhaitz-espezie horretatik ateratako egurrari esker. Gaur egun, *radiata*ren jatorrizko lurraldean, Kalifornian, 4.000 hektarea estaltzen dituzte mota horretako pinuek; Bizkaian, ostera, 70.000etik gora. Hau da, herrialde osoan zuhaitzek betetzen duten azaleraren erdia baino apur bat gehiago (%53,3). Kontuan hartu beharra dago Bizkaian ia %60 dela eremu zuhaitzuna.

Datuok emanez aurkeztu zuen bere burua Kolore Guztietako Basoak plataformak iazko urrian. Euren kezka nagusia, azaldu zuten bezala, bertoko baso autoktonoaren atzerakada da, batez ere horrek dakarren biodibertsitate galera dela eta.

Basoetako lurrek emankortasuna galtzea da beste ondorio bat. Paradoxikoki, horren erruz egur-ekoizpena murriztu da, bertoko espezieen atzerakadaren zergatia egurra ekoizteko onak diren kanpoko espezieak (aloktonoen, zientziaren berbareran) ugaltzea izan bada ere. Bizkaiko baso-masaren laurden bat inguru baino ez dute estaltzen, gaur egun, bertoko basoek, haritz, lizar, erkametz, astigar, ezki eta abarrez osatutakoek. Gainera, basoek egoera txarrean daudela azaldu du Julen Villasantek, Kolore Guztietako Basoak plataformako kideak: «Oso txikiak dira eta oso sakabanatuta daude, elkarregaz lotura barik; basoak, osasuntsu egoteko, handia izan behar du». Bizkaiko baso autoktonoaren kontserbazio-egoera eskasaren berri eman zuen 2011n Eusko Jaurlaritzak argitaratutako txosten batek, Villasantek gogorazten duenez.

**BIZKAIAN PINUA, URIBE KOSTAN EUKALIPTOA.** Herrialdeko gainazal zuhaitzunen %75 kanpoko espezieen landaketek betetzen dute, ia guztiz pinu eta eukaliptoek. Lehenbizikoak 35-40 urtean behin moztu dira, eukaliptoak sarriago: 12-15 urte inguru. Eta eurakaz batera, euren gerizpean garatutako oihanpea ere desagertu ohi da. «Zientzialari gehienak bat datoz: jarduera horien ondorioz, jatorrizko basoa hainbeste sinplifikatzen da, mota horretako landaketei "baso" ere ezin baitzaie deitu», dio plataformak.

Esan dugun bezala, pinua da nagusi Bizkaian. Azken urteetan, ordea, haren lekua hartzen dabil egurgintzako beste espezie *izarra*, eukaliptoak. Hori are kaltegarriagoa da, Julen Villasanteren berbetan: «Beste kalteez gain, eukaliptoak ura desagerrarazten du ingurutik eta sute-arriskua handitu egiten da. Bestetik, askoz zailagoa da eremu batetik kentzeko». Pinua moztutakoan, eremua geldu uzten bada, bertoko basoak berreskura egin dezake. Eukaliptoak, aldiz, berriro jaioko da moztutako aleetatik, hainbat belaunalditan. Azken hamarkadan bigarrena zabalduta da lehenengoaren kalterako, errentagarritasuna



## Kanpoko basoa edukitzearen prezioa

«Habitata suntsitzea, basoa zatitzea eta espezie inbaditzaileak sartzea» dira Bizkaian basoko biodibertsitateari mehatxu egiten dioten hiru faktore nagusiak, Kolore Guztietako Basoak plataformaren arabera. Biodibertsitate-galeraren ondorioetako bat atmosferako CO<sub>2</sub> xurgatzeko gaitasuna da. Bestalde, egurra eskuratzeko mozketak egiten direnean baso osoa suntsitzen da, eta horrek bidea zabaltzen die landare-espezie inbaditzaileei. Eukaliptoek, gainera, ingurua asko lehortzen dute, eta horrek sute-arriskua handitzen du. Ez da kasualitatea Uribe Kostan azken urteotan gertatutako sutarik handiena, 2015ekoa, Berango eta Sopelako eukaliptadietan piztu izana. Kanpoko espezieak kentzea zaila eta garestia da, gainera. Sarritan, «inguruari kalte handia egiten dioten herbizidak erabiltzen dira horretarako», argitu du Julen Villasantek.

dela eta: 4.300 hektarea eukalipto gehiago dago Bizkaian orain dela hamaika urte baino, eta 17.000 dira denera.

Joera bestelakoa da Uribe Kostan. Horrek ez du esan gura eukaliptoak behar bezala doanik, kontrako baina: historikoki espezie hori ugariagoa izan da pinua baino, bai gure eskualdean bai Mungia inguruko udalerrietan ere. Hurrengo orrialdeko infografian ikus daitekeenez, alde handia dago udal batetik bestera, espezie autoktonoen eta aloktonoen banaketari dagokionez. Lemoiz eta Sopelan, eta hein txikiagoan, Berangon, baso-azaleraren portzentaje handia betetzen dute eukaliptoek. Kontua da Lemoizen dagoela, hain zuzen, Uribe Kostako basoaren ia heren bat. Guztira, eskualdeko eremu zuhaitzunen guztien %55,3 eukaliptadiak dira; bertoko espezieek, ostera, baso-azaleraren %36 baino ez dute estaltzen. Beste datu bat: gaur egun zazpi hektarea baso gehiago dago Uribe Kostan 2010ean baino, baina iguera txiki hori eukaliptoaren zabalkundeari dagokio ia osorik; bertoko basoek, aldiz, apur bat atzera egin dute.

**BESTELAKO BASO-POLITIKAREN ESKEAN.** Jaiotzeaz batera, Kolore Guztietako Basoak plataformak kudeaketa-eredua aldatzeko eskatu zion Bizkaian basogintzaren eskumena daukan erakundeari, Foru Aldundiari. Julen Villasantek azaldu du eskariaren muina: «Batetik, irizpide orokor modura, espezie aloktonoen azalerari muga ipintzeko eskatzen dugu. Ez diogu batere pinu eta eukaliptorik egon behar ez denik, baina portzentajeek gaur egungo oso desberdinak izan behar dute». Orain arte Aldundiak egindako bidea gogor kritikatu du: «1994an onartu zuten mendi publikoetan bertoko espezieak sustatzearen aldeko arau bat, baina gaur egun oraindino, eta euren datuen arabera, basoen %69 kanpoko espeziez osatuta dago eremu publikoan; pribatua %76koa da portzentajea».

Plataformaren aldarrikapena, batez ere, Aldundiaren esku dauden titularitate publikoko mendien kudeaketari dagokio: bertoko basoak galdutako lekua berreskuratzeko pausoak gura dituzte. Egurgintza bera ere beste era batera egitea gura lukete. «Bertoko basoagaz ere ekoiztu ahal da», dio Villasantek, «Europako lurralde askotan frogatu da kalitatezko egurgintza egin daitekeela errentagarritasunik galdu barik eta aldi berean biodibertsitatea zainduta duen baso-politika eginez». Naturatik Hurbileko Basogintza esaten zaio jarduteko modu horri.

Jabego pribatuko basoetan modu horretan jardun gura duten ugazabentzat ere diru-laguntzak eskatu ditu Kolore Guztietako Basoak taldeak. Orain arteko foru-laguntza guztiak pinu eta eukaliptoak landatzeko izan direla kritikatu du Villasantek; zelangura, Aldundiak proposamena onartu du, plataformagaz egindako bileretan. Laguntza horiek zelakoak izango diren zehaztea izango da hurrengo pausoa. ◀



# Basoari alburu

**Zelan berrosatu ia osorik esku pribatuetan dauden zuhaiztiak?**



Kolore Guztietako Basoak taldeak Bizkaiko Aldundiari eskatu dio jabego publiko eremuetan egin dezala bertoko basoaren aldeko ahaleginik handiena, hortxe baituka erakundeak eskumen zuzena. Hala ere, eremu pribatuetan egiten denak garrantzi handia edukiko du, Bizkaiko baso gehienak, hiru laurden inguru, halakoetan daude eta. Uribe Kostan, ia %100. Plataformak bere burua eskaini du Naturatik Hurbileko Basogintzaren bidetik jo gura duten ugazaba pribatuei aholkularitza emateko, baina ardura handiena Aldundiak daukala diote. Udalakaz batera lursail pribatuak erosi eta berrosatzeaz gain, pinuak eta eukaliptoak kendu eta horien orde bertoko baso autoktonoa ipini gura dituztenentzako diru-laguntzak eskatzen dituzte. Aldundiak onartu egin du hori (plataformaren beste eskari askori ezetz esan diete), baina kopuruetan desadostasuna dago: laguntza eskuratzeko, lur-ugazaben gastua hektareako 1.000 eurokoa izan behar da gutxienez; kopuru hori 600era jaitea gura du Kolore Guztietako Basoak taldeak, baina araua Europak ipinitakoa dela eta besterik egin ezin dutela diote Bizkaiko agintariek. Ekologisten kritika zein proposamenen gainean daukan iritzia eskatu dio HIRUKAk Aldundiari, baina edizio hau ixteko momentuan ez du erantzunik jaso.

## Basoa Uribe Kostan, udalez udal



Hostoek udalerrri bakoitzaren baso-azalera zuhaiztuna adierazten dute



Kanpoko espezieen barruan, eukaliptoek betetzen duten azalera



Gainerako kanpoko espezieak



Espezie autoktonoak



### BARRIKA

**Baso-azalera**  
199 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%46,2  
Horietatik,  
%96,7 eukaliptoak



### BERANGO

**Baso-azalera**  
308 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%67,5  
Horietatik,  
%94,2 eukaliptoak



### ERANDIO

**Baso-azalera**  
447 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%49  
Horietatik,  
%50,7 eukaliptoak



### GETXO

**Baso-azalera**  
75 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%62,7  
Horietatik,  
%48,9 eukaliptoak



### GORLIZ

**Baso-azalera**  
259 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%36,3  
Hauetatik,  
%70,2 eukaliptoak



### LEIOA

**Baso-azalera**  
48 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%27,1  
Horietatik,  
%84,6 eukaliptoak



### LEMOIZ

**Baso-azalera**  
1.096 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%81,1  
Horietatik,  
%92,2 eukaliptoak



### PLENTZIA

**Baso-azalera**  
263 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%55,1  
Horietatik,  
%98,6 eukaliptoak



### SOPELA

**Baso-azalera**  
170 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%82,9  
Horietatik,  
%95,7 eukaliptoak



### URDULIZ

**Baso-azalera**  
260 Hektarea

**Kanpoko espezieak**  
%58,8  
Horietatik,  
%86,9 eukaliptoak





**Sekula Betikotik**

**ITXASO  
PAYA RUIZ**  
Sortzailea

## Pitxu gizajoa

**H**amahirugarren urtez Antzerki Topaketak antolatu ditu ADELek, Artedrama Euskal Laborategiak. Arte eszenikoetan euskaraz aritzen garenon topagunea da; aktore, zuzendari, antzerkigile eta antzerkizaleentzat urteroko gunea. Aspaldi nenbilen izena eman nahian eta aurten erabakia hartu eta han izan naiz. Aurrekoak bezala, aurtengo topaketak ere Aulestin izan dira, kale bakarreko herri magiko batean. Arraroa egin zitzaidan Gipuzkoako muga pasatu behar ez izana; ohituegi nago, agian, euskal kultura Zarauzko bidesaritik harago kontsumitzen, 40 euro eta 3 orduren truke.

Egunero elkarrekin esnatu, gosaldu eta eskolara joaten ginen. Goizetan irakasgai bat eta arratsaldeetan beste bat. Deusezko mugimenduak, irudimenezko baloi erraldoiak, txerri-boda inprobisatuak, Labanen kubo barruan jaiotako animaliak, Carlota la malota, arbolari besarkadak, deabruaren gorputzetik irtenarazteak, Katakalyen argizaria lurrean, Decrouxen zortzirenak, egoera deserosoak, asmatutako hizkuntzak, Idoiaren kroketak, Shakespeareri errespetua eta gure Pitxu gizajoa... Eskolatik irten, dutxa hartu, goxo afaldu eta ilarara joaten ginen, herriko plaza egunero zeharkatzen zuen ilarara; Audio, Gabiria edo Bizkaia osotik hurbildutako antzerkizalez osatutako jende ilarara. Zer ote zen ilara horien hasieran? Antzerkia. Donostian zinemaldia eta Aulestin antzerki topaketak. Astebetetz, gauero, antzerki emanaldiez gozatzeko aukera izan genuen. Egunez antzerki eskolak eta gauez antzerki emanaldiak; eta ikasleok pozik. Topaketa biribila, Boro agertu ez zen arren.

Zazpi senideko familietan bezala sentitu gara; inor adarretatik zintzilik zenean besaulki zahar baina eroso bat agertzen zen azpian. Amaitu da. Hala ere, berriz kantatuko du *Lekeitioak* Miss Karaokek. Bitartean, agur eta dolore.

**ERANDIO | Hiri Antolamenduko Plan Orokorra**

# Hamaika proposamen udalerrria hobetzeko



Itsasadarreko errepedea hainbat eragileren lehenetsunetako bat da. HODEI TORRES

**Joan den urtarrilean aurkeztu zuten Erandioko HAPOn aurrerapena. Daborduko herritarren eta eragileen iradokizunak jaso dituzte, auzo nagusietan jendaurreko berbaldiak, bilerak eta erakusketak antolatu ostean.**

**IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA** ▶

**E**randioko Udal Gobernuak azaldu duenez, HAPoa erredaktatzeko prozesua «luze eta konplexua» izango da. Lehenengo fase honetan ekarpenak aurkezteko epea amaitu da. Asteotan, batzorde teknikoak aztertzen dabil eragileen eta herritarren iradokizunak, «hala badagokie eta irizpide orokorrakaz baliagarriak» badira HAPOn hastapeneko dokumentuan batzeko. Ondoren, Udalbatzak erabakiko du planaren txosten berria onartuko duen ala ez, baina Udal Gobernuak ez du espero eztabaida hori abendua baino lehen izatea.

**OPOSIZIOAREN PROPOSAMENAK.** Bitartean, oposizioko alderdiek eta zenbait eragilek planteatu dituzten iradokizunak ezagutarazi dituzte. Ganemos Erandiok zortzi ardatz jorratu ditu «Erandio herri abegikorragoa» izan dadin, Marga Vicente zinegotziaren arabera: udalerriko auzoak lotzea; Altzagan, hormigoia gune berdeez eta aisia-esparruengatik ordezkatzeko; Astrabudian, aparka-

## Elkarteen ekarpenak

**Auzokoa Herriko elkarrekin Erandiogoikoa, Goierrri, Asua, Fagoeta eta beste auzo txikiak izan ditu berbabide aurkeztutako iradokizunetan. Elkarrekin babestu egin gura du gune horien nekazaritza-izaera, HAPOk «zerbitzu bako lo-auzo» bihurtu ez dituzan. Besteak beste, planak proposatutako etxebizitza berrien kopuruak behar bezala berraztertzea eskatu dute. Edozein kasutan, azpiegitura gehiago gura du elkarrekin.**

tzeko arazoei konponbide bat ematea; Erandiogoikoa, pediatria-zerbitzua ipintzea eta kultur etxea hobetzea, hainbat kontu berriez batera, beste nekazaritza-auzoetan legez, hala nola azpiegiturak, garraioak eta estolderia; Lutxana Alzagagaz lotzea, Plaia-berritik; Asuako ubidea birgaitzea; eta industrialdeak sustatzea.

Ana Crespo EH Bilduko alkategaiak azpimarratu du eraikiko den etxebizitza-kopurua jaitsi, hutsik dauden pisuak merkaturatu eta gazteek alde ez egiteko alokairuzko etxebizitzak sustatu beharra dagoela. Horregaz batera, koalizio abertzaleak eskatu du biztanleria-hazkundera planifikatzeko azpiegitura sozialak ere ipintzea eta merkataritza-gune handi gehiagorako lizentziarik ez ematea. Egindako beste proposamen batzuk dira itsasadarra aisigunerako erabiltzea eta Astrabudia eta Alzaga oinezkoentzat ipintzea, parking arazoak konpondu ahala. Ondorioz, 2016an egin zuten Astrabudurako aparkaleku-proposamena berretsitu dute.

Aiala Egiluz PPko zinegotziak, ostera, ahalik eta Babes Ofizialeko Etxebizitza gehien eraikitzea eskatu du, «gazteek udalerritik ihes egin behar ez izateko».

Rafa Vaquero Ahal Dugu alderdiko zinegotzia, berriz, bat etorri da kasu askotan Ganemosek eta EH Bilduk defendatutako ekarpenakaz, baita Tartanga Berdea eta Parkinga Konponbide Orain plataformen aldarrikapenakaz ere. ◀



LEIOA | Parte-hartze prozesua

# Zer kiroldegi behar du herriak?

**Azpiegitura berria zelakoa izan beharko litzatekeen ezagutzeko prozesu parte-hartzailea martxan ipini dute. Norbanakoei eta elkarteei galdetuko diete.**

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**E**torkizunean altxatu gura duten kirol-azpiegitura berriak zer beharizan bete beharko litzatekeen jakin gura du Leioako Udalak, auzokideen eta klub-ahotik. Horretarako lantaldea sortu dute agintari leioaztarrek. Hirigintza zinegotzia den Iban Rodríguezek aipatu duenez, herritarren eta elkarten ideiak jasoz martxan ipiniko dute prozesu parte-hartzailea eta, behin hori eginda, proiektua garatuko dute. Irtziak jasotzeaz gainera, berbaldiak eta taillerak egingo ditu lantalde horrek; «kiroldegia eraikitzen hasteko beharrezkoa den guztia», Rodríguezen berbetan. Prozesu parte-hartzailea uztailean amaitu gura dute.

Hirigintza zinegotziaren arabera, azpiegitura berriak eskaini beharko litzatekeen zerbitzuak identifikatu gura dituzte; EH Bilduk 2018ko aurrekontuei egindako zuzenketa batean jasotako 125.000 euroko diru-partida erabilita jasoko dute informazioa. Kontuak onartzeko PSE-EEren eta Esnatu Leioaren laguntza eduki zuen EAJk. Hala, jeltzaleakaz batera, udal-gobernua osatzen duten sozialisten arabera «leioaztarrek Sakonetako kirol-azpiegitura erabiltzen jarraitzea erabakiko balute ere, kiroldegi berria merezi dute».

PSE-EEko zinegotzia den Juan Carlos Martínez Llamazaresen berbetan, «Sakoneta zaharkituta geratu da gaur egun Leioan dauden 31.000 biztanleentzat». Hala ere, udal-agintariek ez dute argitu oraingo kiroldegiaz zer egin gura duten. Leioako EH Bilduk, ostera, argi dauka: «Urteak darozte esaten Sakoneta zaharkituta gelditu dela,



Azken urte bietan milioi bat euro gastatu dute Sakoneta konpontzen. HODEI TORRES

31.000

Leioak gaur egun dauzkan biztanleei zerbitzu egokia emateko, Sakoneta zaharkituta gelditu dela uste dute alderdiek.

60.000

euroko diru-partida onartu dute, Sakoneta kiroldegian konponketak egiteko.

besteak beste kirol-ekipamendu honek izan duen inbertsio-faltagatik». Aritz Tellitu zinegotzi ezkertiarrek esandakoaren arabera, kiroldegi berria egiteaz gainera, «Sakoneta inbertsioak egin behar dira, kirol-azpiegitura horrek ematen duen zerbitzua hobetu ahal izateko». Horretarako 60.000 euroko diru-partida onartu zuten udal-aurrekontuetan, EH Bilduk proposatuta.

**AFERA JUDIZIALAK.** Bestalde, «arazo judiziala konpon dadila itxaron barik», Pinosoloko kiroldegi berria «ahalik eta lasterren» egiten hasi beharko luketela uste du Esnatu Leioako Jose Ignacio Vicentek. Izan ere, kale egindako aurreko egitasmoan, eraikuntza-lanak esleitu zitzaizkien Aros eta Viuda de Sanz enpresei 657.595 euro ordaintzea agindu zion Bilboko Merkataritza Ganberaren Arbitraje Auzitegiak Leioako Udalari. ◀

## Alderdi politikoen iritzia



«Lehenik eta behin, auzokideen eta klub-iritzia entzun gura dugu»

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA  
EAJ



«Judizialki ezerk ez du galarazten kiroldegi berria eraikitzen hastea»

JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ  
ESNATU LEIOA



«Kiroldegi berria egiteaz gainera, Sakonetak inbertsioak behar ditu»

ARITZ TELLITU ZABALA  
EH BILDU



«Sakoneta erabiltzen jarraitu edo ez, kiroldegi berri bat merezi dute leioaztarrek»

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES  
PSE-EE

**KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ**

**BETIKO IKASTOLA**

www.betikoikastola.eus  
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa  
info@betikoikastola.eus  
94 464 23 64

## KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.





PLENTZIA | Zoru Publikoaren erabilera

# Independenteak taldearen jokaera salatu dute dendariak



Kalean terrazak, toldoak, loreontziak eta bestelakoak ipintzea erregulatzen dituzten ordenantzak berrikusten ari direla jakinarazi du David Crestelo alkateak. HO DEI TORRES

**Udalerriko hainbat ostalaritza- eta merkataritza-establezimenduk jabari publikokoa den lurzorua okupatzeagatik tasak kobratzea eskatu diote independenteek Gobernu taldeari.**

TESTUA: IKER RINCON MORENO ▶

**P**lentiako Independentek taldeak hilabeteak daroatza behin eta berriro salatzen udalerriko hainbat ostalaritza- eta merkataritza-establezimenduk jabari publikokoa den lurzorua okupatzen dutela eta Gobernu-taldeak (EH Bilduk) ez diela denei dagokien tasa kobratzen. Diotenez, Udalak «modu arbitrarioan» kobratzen du terrazak bat ipintzeagatik dagokion tasa, «gainerako %50ei ez die ezertxo ere kobratzen; ez du indarrean dagoen Ordenantza aplikatzen», Independentek taldearen arabera. Horren aurrean, David Crestelo alkateak adierazi du tasa hori denei kobratzen zaiela, terrazak bat ipintzeko egiten diren eskaera denak tramitatzen dituztelako: «Are gehiago, Independentek alkatetzan egon zirenean baino lizentzia bi gehiago kobratzen dira orain». Crestelok azaldu duenez, gaur egun dagoen egoera azken urteetakoaren berdina da, «ez dago aldaketarik». Hala ere, azpimarratu du terrazak erregulatzeke ordenantza berrikusten ari direla: «Hori eguneratu nahi dugu, lege batzuk aldatzen joan direlako eta, ondorioz, tasa ere eguneratu nahi dugulako».

Modu berean, kalean erakusleihoak, toldoak, loreontziak eta bestelako elementuak kalean ipintzen dituzten denda eta merkataritza-establezimendu denek ere udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzera behartzea eskatu diote independenteek EH Bilduri; «eremu publikoa okupatzen dute eta ez diote inolako lizentziarik eskatu Udalari», deitoratu dute. Horren

**Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak**  
**«Tasa hori ezartzea dendari txikiontzako kaltegarria litzateke, itota gaude eta ezin dugu gehiago ordaindu»**

aurrean, kalean traba egiten duten elementuak egoteagatik inolako salaketarik ezta kexarik ere jaso ez dutela jakinarazi du alkateak. Hala ere, independenteek diote ez dela inolako salaketarik egon behar indarrean dauden ordenantzak exekutatzeko; hala, aipatutako biak betetzen ez direlakoan, joan den urtarrilaren 12an txosten bat egitea eskatu zien Independentek taldeak udal-zerbitzu juridikoei. Horren aurrean, Crestelok jakinarazi du bere taldeak «eman beharreko pausoak» emango dituela eta deitoratu du Independentek taldeak bere «prebrikazioa» baino ez duela bilatzen.

**ORDENANTZA EZ EXEKUTATZEA ESKATZEN DUTE MERKATARIEK.** Independenteen jokabidea gogor deitoratu du Plentiako Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak. Talde horrek udalerriko ia 40 establezimendu batzen ditu, eta Iñigo Ibarzabal elkarteko presidentek salatu duenez, Independentek merkataritza erabili gura dituzte «euren politikakerietarako».

Merkataritza gogorarazi duenez, udal-talde horrek exekutatu gura duen bigarren ordenantza hori Independentek eurak Alkatetzan zeudenean onartu zen, 2008an, baina ordutik ez dute indarrean ipini inoiz; «hori egitekotan herrian amorrua piztuko litzateke. Merkatariontzako tasa hori ezartzea ez da batere onuragarria, itota gaude eta ezin dugu gehiago ordaindu». Dena dela, udalerrian terrazak irregularrak egon daitezkeela aitortzen du Ibarzabalek, eta ulertzen du kasu horietan denek bete behar lukezela ordenantza: «Terrazak legalizatu egin behar dira». Hala ere, deitoratu du Independentek taldea egoeraz baliatzen dela beste tasa hori ere ipintzeko.

Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak argi utzi gura du ordenantza indarrean ipini gura duena Independentek taldea dela, eta horri eskatu diote balorazio sakon bat egitea, ikustea zein den udalerriko merkataritza txikien egoera eta hori exekutatzearen ideia alde batera uztea. ◀



BARRIKA | Aranbaltza aztarnategia

# Duela 90.000 urteko egurrezko erreminta bat aurkitu dute

Lanabesa 15 zentimetroko punta bat da, eta oso ondo kontserbatuta dago. Arkeologiako adituen arabera, neandertalek lurrian janaria eta arroak bilatzeko edo zulo txikiak egiteko erabiltzen zuten tresna hori.

IKER RINCON MORENO ▶

**H**agin-egurrez egindako neandertalen garaiko erreminta bat aurkitu du nazioarteko arkeologia-talde batek Barrikako Aranbaltza aztarnategian. Aurkikuntza 2015ean egin zuten arren, joan den martxoaren 28an argitaratu zituzten ondorioak *Plos One* aldizkari zientifikoan. Egurrezko lanabesa ikertu ondoren, adituek ondorioztatu dute duela 90.000 urtekoa dela, hau da, neandertalek egindakoa. «Jakín ahal izan dugu hagin-adar luze bat moztu zutela eta, ondoren, zorrotzu egin zutela harriz egindako beste erreminta bategaz. Horren ostean, gainera, sua erabilia gogortu zuten», azaldu dute arkeologoek. Lanabesa lurra zulatzeak zela ondorioztatu dute adituek, izan ere, erabileraren aztarnak aurkitu dituzte, Joseba Rios Garaizar taldea zuzendu duen arkeologoak azaldu duenez: «Janaria eta arroak bilatzeko, lurra zundatzeko edo zulo txikiak egiteko erabiltzen zuten lanabes hori».

Europar oso zaila da 40.000 urtetik gorako egurrezko erremintak aurkitzea, material organiko hori oso erraz degradatzen delako. Hori dela eta, ingurune «oso berezietan» baino ezin daitezke topatu mota horretako piezak, berbarako Aranbaltzako sedimentu istiltsuetan, «gehiagizko ur horrek eragiten duen oxigeno faltak material organikoaren usteltzea atzeratzen duelako».

Gaur egunera arte, Iberiar penintsulan Bartzelonako Abric Romani sedimentu trabertinoetan soilik aurkitu dira mota horretako materialak. Europar, aldiz, lau aztarnategitan barrik topatu dituzte egurrezko lanabesak: Clacton on Sea-n, Schöningen-en, Lehringen-en eta Poggetti Vecchi-n. Hortaz, Aranbaltzako aurkikuntzak Erdi Paleolitoko teknologia hori aztertze bidea erraztuko die adituei. Joseba Riosek azaldu duenez, lehenagotik ere bazekiten neandertalek egur asko erabiltzen zutela erremintak egiteko, baina ezinezkoa zuten jaki-



Aranbaltzan aurkitutako lanabesa eta bestelako material organikoa. © JOSEBA RIOS



«Bagenekien neandertalek egur asko erabiltzen zutela, baina ez genekien zelan. Orain hori dena ikertu ahal izango dugu»

JOSEBA RIOS GARAIZAR  
ARKEOLOGOA

tea zer-zelako teknologia erabiltzen zuten; «aurkikuntza honekin hori dena aztertu ahal izango dugu».

**NEANDERTALETATIK GIZAKI MODERNOETARA.** Historiaurreko 65 aztarnategitik gora daude katalogatuta Uribe Kostan, eta horietan Behe Paleolitotik erromatarren garaia arteko aztarnak aurki daitezke. Hala ere, horien denen artean nabarmentzekoa da Barrikako Aranbaltzako. 2013an hasi ziren indusketa-lanak inguru horretan, Joseba Rios arkeologo algortarra zela beharren buru. Châtelperrondarren zantzuak aurkitu dituzte, azkenengo neandertalen eta lehenengo gizaki modernoaren arteko trantsizio-frogak izan daitezkeenak. Aranbaltzan aurkitutakoa nabarmendu du Riosek: «Daukagun erregistroa oso aberatsa da». Neandertalen okupazio bat berreskuratu da bertan, aire zabaleko kanpamentu bat dirudiena. «Horrelakoak oso gutxitan aurkitu dira. Eurak zelan bizi ziren ikusteko aukera ematen digu horrek, zelan antolatzen ziren eta zelan bizi ziren haitzuloetan ez zeudenean», adierazi du arkeologoak. ◀

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

**GARAIZAR**

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA  
944 305 243 · 607 952 977  
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

aldai

Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31



# «Esprintean ez naiz inoiz sartu: la

**Angel Bilbao Laraudogoitia Gorritxu txirrindulari beteranoari omenaldia egingo diote apirilaren 21ean, Urdulizen. Beti Lagunak jubilatuen elkarteak dabil prestatzen 83 urteko plentziarrari gorazarrea.**

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**Zer deritzozu omenaldiari?** Pozarren nago. Sinetsi ere ez dut egiten, inoiz ez didatelako ezer egin. Hiru etapa irabazi nituen, Plentzian ere... Sekulakoak egin ditut eta inork ez du inoiz nirekiko keinu politen bat izan. Eskerrak ekitaldia antolatzen dabilen Jose Mari Gondrari, Iñigo Mentxakari eta besteei!

**Plentziarra izanda, zergatik dira urduliztarrak omenaldia egingo dizutenak?** Plentziakoa naiz baina bizitza Urdulizen egin dut betidanik. Jubilatuetan ere, lehenengoetarikoa izan nintzen izena ematen, eta hemen segitzen dut.

**Kosta zitzaizen zu konbentzitzea?** Ez, ez. «Omenaldi bat egingo dizugu» entzun eta «eskerrik asko» esan nien nik. 83 urte dauzkat; orain arte ez da inor nigaz gogoratu, lasterketak erruz irabazi ondoren.

**Bizkaiko Txirrindularitza Sariko garaikurrak banatzeaz gainera, lasterketa-zuzendaria ere izango zara. Inoiz egin duzu aurretik?** Inoiz ez naiz lasterketa-zuzendari izan, baina laguntzaile bai, hemen Urdulizen, orain dela hiru urte edo, lehenengo mailako afizionatuakaz. Ondo ezagutzen ditut egin beharrekoak: 1951n edo hasi nintzen txirrindularitzan. Gaur egun oraindino banabil, eguneko 40-50 kilometro egiten, eguraldiaren arabera. Denboraldi honetan ez dugu kilometro asko egin eguraldi kaxkarra egin duelako.

**Omenaldiaren egunean, herri bazkaria ere izango da. Edo-nork eman dezake izena?** Bai. Hainbat lekutan eman daiteke izena: Urdulizko jubilatuen etxean, besteak beste.

**Zelan hasi zinen lehiatzen?** Garai hartan ez zeuden gerora izan diren kategoriak: afizionatuak, bigarren, laugarren eta abar. Orduan, jautzia emateko «independente» modura egin beharra zegoen. 1955ean profesionalakaz lehiatzen hasi nintzen, talderik eduki ez arren. Urte hartan, Plentziako hiru etapak segidan irabazi nituen. Horren ostean, Antonio Rojok, uste dut Bilboko Federazioaren presidentea zenak, etxera ekarri zidan lizentzia. Hala, hiru lasterketak irabazi eta egun gutxira hasi nintzen profesionalakaz lehiatzen. Lehenengo lasterketan bigarren geratu nintzen, Fausto Izak irabazi baininduen. Nik ez nuen irten gura, lotsa ematen zidalako.

**Zergatik?** Hor zeuden Fausto bera, Aizpuru, Loroño, Morales anaiak... Nik aurreko lasterketak irabazita neuzkan etxe inguruan, eta ospe handiko txirrindulari horiek ikusi nituenean, ikaratu egin nintzen. Andrakas kazetaria etorri zitzaidan: «Zer gertatzen zaizu?», eta nire osabak erantzun zion: «Zer geratuko zaio, ba! Ez duela irten gura!»; «zergatik?»; «jende horregaz, ezta ogitartekorako ez dela aterako dioelako, eta ez duela korrikarik egingo»; «zelan? Ostikada bat emango dizut potroetan! Irten zaitez!». Irteeran nire zain zeuden eta Carmelo Moralesek bota zuen: «Baina zer, Coppi modukoa da ala, denok berari itxaron behar izateko?». Fausto Iza hurreratu zitzaion eta bota zion: «Horregaz kontuz ibili, Plentziako hiru etapak iraba-



Gorritxuren ustean, «txirrindularitzak

## Gaur egungo txirrindularitzari begira

Angel Bilbaoren berbetan, «izugarritzko aldaketa» egon da bere garaitik gaur egungora. Kontatu duenez, gazteei esaten die prestatu egin behar dutela, «zuzendaria, gurasoak eta abar engainatu barik», ondo prestatzen ez badira «alferrik» dabilzalako. Bere ustean, orain «erabat mizke hazten dabilta» txirrindulariak. «Lehen, ordeko gorpila soinean eroaten genuen eta zulatuz gero guk geuk aldatu behar genuen. Ura gura izanez gero, gu geu moldatu behar izaten ginen. Orain zeruan dabilta gazteak», dio Bilbaok. Hala, bat dator Bahamontes txirrindulari mitikoagaz: «Orain ez dakite zer den bizikletan ibiltzea, gure garaian bai korritzen genuela». Bestalde, bere garaian ezinezkotzat zeukan Sopela Women Team moduko emakumezkoen taldeak egotea: «Orain merkataritza-markek eta udalek apustu handia egin dute, baina gure garaian ez zuten ezer egiten emakumezkoen kirolaren alde».

zi ditu eta». «Ez da izango!». Antonio Barrutia nigana etorri zen eta galdetu egin zidan. Eta nik baietz.

**Zer gertatu zen lasterketan?** Azkenean irten egin nintzen. Gorpila zulatu zitzaion Antonio Ferrazi eta orduan eraso egin zuen Fausto Izak. Nik ezin nuen harrapatu, baina tropela ere ez zen ni jateko kapaz izan, igotzen oso ondo nembilelako. Jaisten, ez hainbeste. Iza hur neukan baina ez nuen harrapatzen. Jan eta edan barik nembilen, hurbil zegoenez ez neukalako astirik galtzeko. Azken zatian, nik daborduko txakalaldia neukan. Iza lehenengo sartu zen eta ni atzean. Hurrengo egunean, bigarren etapen, Muxika-Gernikan, argiago ibili nintzen, ikara apur bat aldentuta. Antonio Ferraz atera zen eta nik ere irteteko gogoan nuen, baina Autzagane gainera arte itxaron nuen. Portuaren erdian erasoari ekin nion eta Zornotzan harrapatu nuen Ferraz; bertan buelta eman eta berriro igo behar ginen, Gernikarantz. Sasikumeak esan zidan: «Animo, mutil. Atzo bigarren egin zenuen, baina gaur irabaziko duzu». Bera nire gorpilari itsatsita ibili zen eta ni tonto baten antzera tiratzen. Artea-ga, berriro Gernika, eta Muxikara, helmugara, Durangoraino hainbat buelta eman ondoren. Bigarren egin nuen. Sasikume horrek esprintean irabazi ninduen. Hurrengo egunean, hirugarren etapen, Bermeon, bizpahiru buelta gneukan Gernikatik, Sollubera birritan igo behar ginen eta eraso egin ala ez pentsatu ostean, baietz erabaki eta ekin nion ihesaldiari. Arenaza medikuak Tomas Ariño ekarri zuen autora helduta, eta esan zidan: «Utziozu irabazten». Begiratu nion eta pentsatu nuen



# «Lasterketa denetan ihes egin dut»



«Merezi du ona bazara, dirua dago eta. Baina hori orain da horrela, lehen ez». HODEI TORRES

«lasterketa irabazita daukat». Baina gurpilari itsatsi zitzaidan. Eta Arenazak irabazten uzteko... «Berak ahal badu» erantzun eta Ariñori bota nion: «Tira ezazu, bestela harrapatuko gaituzte. Zu indartsu zaude». Eta berak baietz, bere gurpilari jarraitzeko. Bermeon berriro ekin genion Sollubera igotzeari. Gaietik 200 bat metrora eraso egin eta bertan botata utzi nuen. Bermeora ihes eginda heldu nintzen. Sardina-saltzaileek balde handi batean atera zidaten ur epela. Arropa denak kendu nituen eta bertan dutxatu nintzen, zer inozoa nintzen! Eta denak barrezka nire inguruan. Ostean, saria kobratzera joan nintzen eta 100 pezeta eman zizkidan gizon batek, aholku bategaz batera: «Mutiko, potroak ondo ipinita dituzu baina oraindino asko daukazu ikasteko errepidean».

**Beti ihes egiten zenuen?** Ohituta nengoen «agur» esaten. Esprintean ez naiz inoiz sartu. Lasterketa denetan ihes egin dut: Bilbo, Gorniz, Plentzia, Gatika, Butroe, Udondo, Laukiz, Mungia... Hemeretzi proba irabazi nituen lehen urtean.

**Noiz izan zen zure lehenengo taldea?** 1960an. Brandy Majestad izan zen, *El rey de los coñacs*,

**Zer-zelako giroa zegoen taldean?** Loroñogaz ibili ginen. Ni agregatua nintzen, ezin nuen egin gura nuena.

**Loroñok zioena egin behar zenuen?** Jakina! «Gorri, etorri hona!», eta ni, txakurtxo baten antzera. Andaluziako Vueltaren

## Estilo askotako taldeetan ibilitakoa



### Brandy Majestad

Jesús Loroñoren taldeak fitxatu zuen Angel Bilbao 1960an, hainbat urte independente modura jardun ostean.



### Gorbea-Beyena

Talde horretan sartu zen Bilbao, Espainiako Vueltari uko egin zion urte berean, 1960an.



### Beyena

Aurreko taldearen jarraipena, Bilbaok 1961. urtean utzi zuen, zuzendariagaz hainbat desadostasun eduki ondoren.



### Excavaciones Gómez

Bermeoko taldea erabili zuen Bilbaok beteranoakaz lehiatzeko. Gainera, Grasas Gavin taldea sortu zuen.



### Punta Galea

Talde getxotzarrean lagundu izan du plentziarrak, tartean Urdulizko Bizkaiko Txirrindularitza Sarian.

ren etapa batean, Sevillan, uste dut, Loroño eta beste batzuk jausi ziren. Angelino Soler zen sailkapeneko burua eta etapan ere aurretik zebilen; Carlos Pérez nire taldekidea eta biok beragaz joan ginen. Ihes egin eta distantzia handia lortu genuen. Oscar Eguezabal zuzendaria etorri zitzaigun. Eguezabal ez zen inor, hor agintzen zuena Loroño zen: «Loroñok esan du bizikleta eroan diezaiozula, zuzenean». Orain debekatuta dago baina orduan ez zegoen. Hala, buelta eman eta Loroñorengana joan nintzen. Baina, zer gertatu zen? Ni txikia nintzen eta Loroño altua, jesarrita joan nintzen koadroaren gainean eta helmugatik gertu eurakaz sartu nintzen. Ostean esan zidan maleta prestatu eta etxera joateko.

**Taldetik bota zintuen?** Azkenean ez, hainbeste egin zidan oihuka negar egiteari ere ekin niola. Oscar Eguezabalek eta taldekideek esan zioten «utzi mutiko gaixoa bakean, ez du maleziaz egin; Solerregaz eta Pérezegaz joan da, besterik ez». Eta horrela geratu zen kontua. Baina aurretik Loroñogaz logela berean egiten nuen lo eta ordutik aurrera beste gela batera bidali ninduten.

**Zelan aldatu zinen Majestadetik Beyenara?** Espainiako Vueltara joatekoa nintzen, baina aitak esan zidan «zu Vueltara bazoaz nik beste morroi bat ekarriko dut baserrira», bertan bera eta biok bakarrik geundelako. Etxean ni bakarrik hiru urte egon nintzen bera lanera zihoanean, bizikletan ibiltzeaz gainera. Loroñori azaldu nion zer gertatzen zitzaidan, eta taldetik bota ninduten; Alberdi joan zen nire maillotagaz Espainiako Vueltara. Orduan pasatu nintzen Beyenara. Baina Beyenagaz ere txarto pasatu nuen. Eibarko Bira egin genuen, Eusebio Hierro [González] zuzendariagaz: jateko ere ez zidaten atera! Eurak emakumeakaz geratu ziren eta ni aldats gora batean Eibarren ondoan, txakalaldiagaz. Behetik esan zidaten «orain eroango dizugu jatekoa», eta nik: «Orain? joan zaitezte pikutara!». Nire aurretik pasatu ziren eta ez jakirik ezta urik ere. Ni ibai batera joan nintzen eta haiek amaitu zuten etapa.

**Zein zen zure egoera pertsonala orduan?** Ama hil zitzaidan eta hondoa jo nuen, inoiz baino hobeto nengoen. Gainera, aita potrohandia zen. Unbeko laguna, Arra zena, etorri zitzaigun eta aitari esan zion: «Antonio, etxean egundoko txirrindularia daukazu eta zaindu egin behar duzu». Eta aitak erantzun zion: «Bizikletan ez dago dirurik, dirua hemen dago». Baserrigatik, behiengatik eta patatengatik zioen. Patatak tonaka saltzen genituen. Aurretik txiroak bezala bizi izan ginen, gosea pasatu genuen, baina lurrak erosi berriak ziren eta etxea ere egin berria, 1943an edo 1944an. Txirrindularitza ezin zen bizi eta nik etxean lan egiten nuen. Zenbat bider egin ote nituen entrenamenduak bizikletan gauetz, egun osoa lanean eman ostean! Eta halere ondo nenbilen! Beyenara pasatu nintzenerako apur bat makal nenbilen, ez bainintzen kapaza hainbeste lan eta entrenamendutarako. Baserri bi geneuzkan, Urdulizen beste bat erositak. Nik egitekoak egin eta eguerdian *Gatxapu* lagun urduliztarra zain neukan, motorraz lasterketara eroateko, eta ni bainandoan, bazkaldu eta edan barik.

**Beyena eta Gorbea taldeen ostean lehia-txirrindularitza utzi zenuen. Zer egin zenuen ondoren?** Beteranoakaz ateratzen hasi nintzen; taldea osatu nuen nenbilen lantegian, Grasas Gavin, hilerrri ondoan zegoena. Eta horiekaz baino lehenago, Excavadoras Gómez taldeagaz atera nintzen, Bermeon. Azkenaldian, Gasas y lubricantes Gavin taldeagaz ibili nintzen. Hor utzi nuen. Ezin nuen gehiago, ganaduz arduratu beharra neukalako eta txarto nenbilelako. Gainera, hiru urte pasatuta ezkondu nintzen baina ordurako nekatuta nengoen. ◀



IRAKURZALETASUNA | Literohitura irakurle-taldea

# «Euskaraz irakurtzeko joera bultzatu gura dugu»

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**L**iburuzaina izateaz gainera, Plentziako Literohitura irakurle-taldeko kidea da Gotzone Butron Kamiruaga gorliztarra. Azaldu digunez, hilabetean behin batzen da dozena lagun inguru, 19:30ean, Plentziako Kasinoan; saio horietan aurretik irakurritako liburuaz berba egiten dute. Hilabete bitik behin idazleak ere parte hartzen du.

**Zelan bururatu zitzaizuen irakurle-taldea sortzea?** Bertoko euskaldunon artean beti komentatu izan dugu horrelako talde bat behar genuela herrian; batez ere irakurritako azken liburuari buruz berba egiten genuen bakoitzean. Ni neu liburuzaina naiz, eta gure artean idazleak ere badauzkagu, barbarako Jokin de Pedro. Irakurle-taldea sortzeko proposamena bota genuen eta hamar-hamabi lagun batzen hasi ginen. Hori izan zen abiapuntua. Saioak hilean behin egiten ditugu.

**Ze helburu dauka irakurle-taldeak?** Alde batetik, jendea euskaraz idatzitako liburuak irakurtzera bultzatzea; izan ere, euskaldunak izanda ere joera edukitzen dugu gaztelaniaz irakurtzeko. Gainera, literaturaren barruan, ez dugu generoen arteko bereizketarik egiten: eleberria, poesia... Irakurtzera gonbidatu gura ditugu herritarrak; beti ere euskaraz. Eta behin liburu irakurrita, horrek sortu dizkigun gogoetak elkartrukatzea. Horrek beste helburu batzuk ere betetzen ditu: kasuak kasu, euskararen normalizazioa.

**Zelakoa da taldearen funtzionamendua?** Aurtengoa da Literohitura irakurle-taldearen lehenengo ikasturtea: kurtsoaren hasieran batu ginen eta bakoitzak irakurri gurako lituzkeen liburuak esan zituen; horiekaz denakaz zerrenda bat egin genuen eta horri jarraitzen diogu. Bestalde, Euskara Sailaren laguntzaz, hilabete bitik behin gureru etortzen da esku artean



Martxoaren 21ean Harkaitz Cano idazlea gonbidatu zuten *Twist* bere eleberriaz berba egiteko. © LITEROHITURA



**Ai, ama!**

**Arantza Iturbe**

Literohitura irakurle-taldeak apirilaren 18an, eguaztenean, egingo du hurrengo saioa. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Plentziako Kasinoan. Hala ere, oraingo honetan idazleak ez du parte hartuko.

daukagun liburua egin duen idazlea. Gainera, emakumezkoek eta gizonezkoek idatzitako liburuak tartekatzen ahalegintzen gara. Azkenik, poesia lantzeko, saio bakoitzean olerkitxo bat irakurtzea bururatu zitzaigun; izan ere, poema-liburu oso bat irakurtzea zailagoa gerta daiteke.

**Irakurle-taldean izena ematea beharrezkoa da?** Irakurle-taldea finkoa da; horrek ez du esan nahi itxia denik. Egon badago taldean izena emateko aukera gure helbide elektronikora idatziz: literohitura@gmail.com. Horrela egiten dugu, elkarregaz liburua komentatu aurretik, bakoitzak bere etxean irakurri behar duelako. Hala, liburuak eskatzen ditugu udal-liburutegian eta, askotan, beste biblioteca batzuetatik ekartzen dituzte. Hala ere, idazlea gureru etortzen denean, beti saiatzen gara jende gehiagorengana iristen.

**Bestelako ekimenetan ere parte hartzen duzue?** Udalagaz batera, *Nasarako kontakizunak* egitasmoa martxan daukagu. Dakizuenez, orain dela 125 urte heldu zen trena Plentziara. Hori ospatzeko, 24 idazle batu ditugu, horietatik batzuk amateurrak. Idatzitako istorio bakoitzaren amaierako esaldia hurrengo kontakizunaren lehenengoa izango da. Kateatutako istorio horiek trenari lotuta egongo dira eta hamabostean edo hiru astean behin argitaratuko ditugu. Urtarrilean hasi ginen, eta datorren hamar kontakizun dauzkagu idatzita; horietatik lau ezagutzera eman ditugu. ◀

## Altzaga-Erandio Haurreskola

Matrikulazioaren epea: apirilaren 30tik maiatzaren 11ra (biak barne)

Periodo de matriculación: del 30 de abril al 11 de mayo (ambos incluidos)



Zatoz haurreskola ezagutzera! apirilaren 20an eta 27an 17:00etatik 19:00etara.

Ven a conocer el centro el 20 y 27 de abril de 17:00 a 19:00 h.

**ALTZAGA-ERANDIO HAURRESKOLA**

Desanexión, 4 - ERANDIO

Telefonoa: 944 674 687

Korreo elektronikoa: altzaga.erandio@haurreskolak.eus

http://www.haurreskolak.eus





## Sukaldaritza eta elkartasuna



© GO MATALEN

**ASTRABUDUA | Putxera** Takolos irrati-klubak erronka handia antolatu du zapatu honetarako, apirilaren 14rako. Astrabuduko batzokian 5 euroko txartela erosiz gero, indabak sakramentuakaz dastatzeko aukera egongo da. Batutako dirua Donohue sindromea daukan Maialen Aulestiari laguntzeko erabiliko dute; 7 urteko ume bilbotarra gaur egun gaixotasun hori diagnostikatu dioten hiru pertsonetako bat da. Munduan gaixotasun hori jasan duten 50 pertsonaren datuak baino ez daude, eta Maialen Europako bakarra da gaur egun.

### Antzerkia

**Apirilak 13, barikua**

#### Hozkailua

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Ander Lipus eta Patricia Urrutia aktoreakaz. Euskaraz. Sarrera: 6 euro.

**Apirilak 14, zapatua**

#### Yogipuinak

18:30 | Sertutxena eraikina | Gortiz

Maite Arrese ipuin-kontalariagaz. 4 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

**Apirilak 18, eguaztena**

#### Ibili alai, ipuinetan blai

18:00 | Astrabuduko liburutegia | Erandio

Izaskun Mujika ipuin-kontalariagaz. 5 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

### Dantza

**Apirilak 14, zapatua**

#### Sincopados

19:30 | Areetako musika-eskola | Getxo

Txalaparta eta klakea. Sarrera: 5 euro (3 euro musika-eskolako ikasleentzat).

**Apirilak 15, domeka**

#### Barrikadak

12:00 | Metro-geltokia | Plentzia

Musika eta dantza, kalean. Bilboko Salbatzaile Dantza Taldeak parte hartuko du.

### Deialdiak

**Apirilak 16, astelehena**

#### Euskarak 365 egun egitasmoko lantaldea osatzeko batzarra

18:00 | Erakusketa-aretoa | Gortiz

Parte-hartzea libre.

### Erakusketak

**Apirilak 12, eguena**

#### Gorputzak erakusketaren aurkezpen-ekitaldia

19:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Sorginen Alabak taldeak antolatuta. Apirilaren 20ra arte bisitatu ahal izango da. Sarrera, doan.

**Apirilak 15, domeka**

#### Ibilgailu Klasikoen Bizkaiko Biraren zazpigarren edizioa

10:00 | Ontziola plaza | Plentzia

Plentziaclassic elkarteak antolatuta.

**Apirilaren 21era arte**

#### Boxeolariak

Algortako kultur etxea | Getxo

Sergio Monederoren argazkiak. Sarrera, doan.

**Maiatzaren 9ra arte**

#### Colección de caprichos

Algortako kultur etxea | Getxo

Jose Ramón de la Fuentesen pinturak. Doan.

### Musika

**Apirilak 12, eguena**

#### Perfect World rock taldea

20:00 | The Piper's taberna (Algorta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuitua. Doan.

**Apirilak 13, barikua**

#### Plentziako Kantagune

19:30 | Kristo basiliza | Plentzia

Entsegua eta kantujira egingo dituzte. Parte-hartzea libre.

#### Opus Cuatro talde argentinarra

20:00 | Kultur etxea | Urduliz

Petit Comite taldeagaz batera abestuko dute. Sarrera: 10 euro.

**Apirilak 14, zapatua**

#### The Old Timey String Band

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Country folk, bluegrass eta sustrai iparramerikarreko soinuak. Danontzat. Ingelese. Sarrera: 4 euro.

### Txangoak

**Apirilak 15, domeka**

#### Burdinbidearen Euskal Museoa

08:00 | Astrabuduko taxi-geltokia | Erandio

Hilabete honetan Azpeitira joango dira Astrabuduko Fotoclub taldeko kideak. Informazio gehiago: astrabudukofotoclub@gmail.com

#### Osasunaren Eguna

09:00 / 11:00 | Kultur etxea | Barrika

Ibilbide bi egongo dira: bata, luzea, 09:00etan abiatuta; eta bestea, laburra, 11:00etan abiatuta. Ibiltariak Plentziatik, Gortiztik eta Barrikatik igaroko dira. Hiru udalerrietako kultur etxeetan izena eman daiteke.

### Patxistein doktorea, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoakaz



**BERANGO | Pailazoak** Umeentzako

ikuskizuna antzokian egingo dute,

domeka honetan, apirilaren 15ean.

Sarrerak 4 euroan egingo dira.

### Danontzat gaztetxea (Plentzia)

Bosgarren urteurrena

Apirilaren 13tik aurrera



**Apirilak 13, barikua**

19:00 Mural-margoketa.

**Apirilak 14, zapatua**

22:30 La Basuren kontzertua. Doan.

**Apirilak 20, barikua**

21:00-03:00 Kontzertuak: Glaukoma, DJ Jo ta Txo eta DJ Brim. Sarrera: 8 euro, aurretik, eta 10 euro, bertan.

**Apirilak 21, zapatua**

12:30 Egun osoko jaia, Gortizen.

21:00 Danontzat bost urte ekitaldia, gaztetxean.

23:00 Zipote Records eta Urrats taldeak.

### Zinema

**Apirilak 12, eguena**

#### La dama de oro

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Genero-ikuspegiko zinema. Gaztelaniaz. Doan.

**Apirilak 13, barikua**

#### Moonlight

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo

Filma 16 urtetik gorakoentzat. Ingelese, gaztelaniazko azpigituluakaz. Sarrera: 2,90 euro.

**Apirilak 14, zapatua**

#### Gatos. Un viaje de vuelta a casa

17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Animazio-filma. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

**Apirilak 15, domeka**

#### Ballerina

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Danontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

**Apirilak 17, martitzena**

#### Mr Gaga

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Filma 16 urtetik gorakoentzat. Frantsesez, gaztelaniazko azpigituluakaz. Sarrera: 2,50 euro.

## Euskararen laguna

Anima zaitetz euskaraz egiten Getxoko saltoki eta tabernetan! Ezagutzen baduzu, Euskararen laguna sarean sartu litekeen Getxoko saltokiren bat bidali WhatsApp-a 688675345. Sarean sartzeko gonbidapena egingo diogu.

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua  
94 466 00 10  
euskara.zerbitzua@getxo.eus  
www.getxo.eus/euskara

Nahi baduzu, euskaraz



**Bizkaia**  
Tuturá burua  
dijidación, forá

**Getxo**  
1917

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



SARA URRESTI | Espainiako surflari amateurren ligako liderra

# «Munduko lehenengo 15 emakume surflarien artean egon gura nuke»



Tapia de Casariogoko uretan bikain jardun zuen Sara Urresti surflari sopoloztarrak. © FESURFING

**Martxoaren 29tik 31ra bitartean, Asturiaseko Tapia de Casariogoko herrian egin zuten Goanna Pro 2018 txapelketa. Proba horretan, Sara Urresti Caballero 16 urteko surflari sopoloztarra izan zen irabazlea. Garaipena lortuta, FESURFING Ligako buru ipini da, lau proba falta direla.**

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**E**spainiako surflari amateurren ligako irabazlea nor izango den erabakitzeke lau proba falta diren arren, garaipena lortzeko aukera asko dauzkala uste du Sara Urresti sopoloztarrak. «Tapien erakutsi nuen moduko surfa egiten badut, aukeraren bat badaukadala seguru nago», aipatu du. Oso motibatuta dago, eta lehian jarraitzeko prest, dioenez. Hala ere, aurkari gogorrak edukiko ditu aurrean.

**Zaila egin zitzaizun Asturiaseko txapelketa irabaztea?** Txapelketa amaitu zenean esan nuen bezala, oso gogorra izan zen finala; aurkari indartsuak izan ziren Violeta Sánchez kantabriarra, Isabel Gundín galiziarra eta María Martínez euskal herritarra. Baina, azkenean, 9,30 lortuta, lehiaketa irabaztea lortu nuen eta, horri esker, FESURFING Ligaren buru ipini naiz sailkapenean. Gainera, ez dut Goanna Proren mailako txapelketarik inoiz irabazi. Oso pozik nago.

**Joan den asteburuan, osterara, bestelakoa izan zen egoera. Zarauzko txapelketa gogorragoa zen?** Zapore gazi-gozoak izaten ditu surfak. Munduko sailkapenerako puntuagarria zen Zarauzko proba. Surfean eroso nengibilen: final laurdenetara heltzea lortu nuen, erronda bi igarota; baina, hortik aurrera, egoera zailtzen joan zen. Kontuan hartu behar da horrelako probetan goi-mailako surflariek parte hartzen dutela; mundu mailako sailkapena dago jokoan. Hala ere, aipatu beharra

daukat neure burua oso ondo ikusi nuela. Hortaz, nazioarteko txapelketak egiten jarraitzeko asmoa daukat. Gainera, mundu-mailako sailkapenean lau postu irabazi ditut, hiru proba egin ostean; Europako mailan 15. postuan nago orain. Aurrerapauso bat da: iaz beherago amaitu nuen. Beste pare bat txapelketa jokatuta gora egitea espero dut.

**Zelan ikusten dituzu Espainiako Ligako hurrengo probak?** Guztira sei proba dira: Cádizen laugarrena eta Tapia de Casariogon (Asturias) lehenengoa izan nintzen. Beste lau falta dira: Galizian bat, Cádizen eta Asturiasen berriro, eta azkena Kantabriari. Uste dut horietan ere ondo ibiliko naizela. Gainera, oker ez banago, lehenengo lau postuetan amaitzen duten surflariek Espainiako selekzioan parte hartuko dute. Hori dela eta, oso motibatuta nago.

**Geratzen diren Espainiako Ligako probetan zeintzuk izango dituzu arerio nagusiak?** Garazi Sanchez-Ortun eta Leticia Canales arerio gogorrak izan daitezke. Baina, Euskal Herrietik kanpo ere surflari bikainak daude: Melania Suárez kanariarra, Isabel Gundín galiziarra eta Violeta Sánchez kantabriarra, besteak beste. Horiek izango dira nire aurkaririk gogorrenak.

**Uste duzu hurrengo probetan lehenengo postuari eutsi ahal izango diozula?** Nik uste dut baietz. Tapien erakutsi nuen moduko surfa egiten badut, aukeraren bat daukadala seguru nago.

**Zein da gako lehenengo postuari eusteko?** Nire ustez, zeure burua ondo trebatzea eta egiten duzun surfagaz pozik egotea da onena. Horrela, zeure buruarengan konfidantza baduzu, hobeto egingo duzu.

**Zelan hasi zinen surfean?** Leticia eta Loiola Canalesen senideen lagun minak dira nire gurasoak. Cádizera joan ginen egun batean, eta han erakutsi zidaten surfa egiten Leticia eta Loiolak. Uda ailegatu zenean, Sopolako Peña Txuri Surf Eskolan sartzea erabaki nuen; oso ondo hartu ninduten guztiak. Peña Txurin hainbat ikastaro egin nituen eta, ondoren, entrenatzen jarraitu dut. Zazpi urte neuzkan surfean hasi nintzen; bederatzi igaro dira.

**Orain arte lortutakoen artean, zein garaipen duzu akorduan?** Tapien lortutakoa oso garrantzitsua izan da. Hala ere, iaz Espainiako ligako bigarrena izan nintzen, Euskal Herriko Open kategorian bigarrena eta Euskal Herriko txapelduna nire adinean. Aurrera begira, gustatuko litzaidake munduko sailkapenerako baliagarria litzatekeen probaren bat irabaztea.

**Zelan daroazu ikasketak eta surfa uztartzea?** Orain buruan daukadan ideia nagusia ikasketak amaitzea da; izan ere, Medikuntza ikastea gustatuko litzaidake. Gainera, gurasoek esan ohi didate garrantzitsuena ikasketak direla eta horren ostean dagoela surfa.

**Medikuntza karrera ikasteak denbora utziko lizuke surfean aurrera egiteko?** Ez dakit. Garai hori iristen denean ikusi beharko dut zelan moldatzen naizen. Hala ere, Medikuntza asko gustatzen zait.

**Noraino iritsi gura zenuke surfean?** Munduko sailkapenean lehenengo hamabost emakume surflarien artean egotea gustatuko litzaidake. Ez litzateke batere txarra izango. ◀

## Iazko palmaresa

- Espainiako ligako bigarrena.
- Euskal Herriko Open kategoriako txapeldunordea.
- Euskal Herriko txapelduna, bere adinekoen artean.







GETXO | Romo kultur etxea

## Lehenengo zerbitzuak martxan daude daborduko

Joan den astelehenean, apirilaren 9an, zabaldu zituen ateak Romo Kultur Etxeak, zerbitzu hauek: udal-euskaltegia, liburutegiak (umeena eta nagusia), gaztelekua, erakusketa aretoa, uzteko gelak, kultur etxeko tailerrak eta entsegu-gelak (instrumentu barik). Gainerako zerbitzu eta instalazioak apurka-apurka zabalduko dira hurrengo hilabeteetan. Bitartean, Getxoko EH Bilduk hainbat «gabezia» atzeman ditu azpiegitura horretan, hala nola leku faltak eta irisgarritasun arazoak.



SOPELA | Film laburren lehiaketa

Sopelako Kuadrillak elkarteak film-laburren Korto Express lehiaketa antolatu du zapatu honetarako, hilaren 14rako. Edonork parte har dezake.

ERANDIO | EAJren alkategai berria



Aitziber Oliban Gutiérrez zinegotzi ohia izango da EAJren alkategaia 2019an.

PLENTZIA | Gorputzak erakusketa

Sorginen Alabak talde feministak argazki-erakusketa antolatu du Goñi Portaleko kultur etxean. Apirilaren 20ra arte egongo da ikusbide.

GETXO | "Begoña, 100 urte, 100 ekintza"

Begoñako galeriak bisitatzeko ibilbide «autogidatuak» osatu dituzte. Dena dela, orain arteko bisita gidatuak ere egin ahal izango dira.

PLENTZIA | Altsasuko gazteak

## Atxilotutakoen aldeko zapatuko manifestaziorako deia egin dute

Altsasuko (Nafarroa) zortzi gazteen aurkako auzia garatzen dabilen moduagatik kezka eta amorrua adierazi dute Plentziako eta Gorkizko ehun lagun baino gehiagok: «Proporzionaltasun-falta dago».



GETXO | Getxopedia

## Interneten euskararen presentzia areagotzeko proiektua martxan

Azkue Fundazioak martxan ipini duen proiektuaren helburua da «herritarrei Getxoren gaineko artikuluak euskaraz idazten animatzea eta Wikipediara igotzea, Interneten euskararen presentzia areagotze aldera».



GETXOKO EH BILDU | Getxo Kirolak-eko monitoreen greba

«Lan-gatazka honen erantzule zuzena EAJ taldeak sustatzen duen azpikontratazio politika da»



CIUDADANOS | Getxo Kirolak entitatearen balorazioa

«Azken bost urteotako abonatuaren balantzerik okerrena izan genuen iaz. Gauzak ez dira ondo egiten ari»

# 7.347 kilo janari

Atfal elkarteak Saharako errefuxiatuentzako 7 tona janari eta higiene produktu batu ditu udalerriko hainbat instalaziotan.



**Chiribitas** liburua aurkeztuta

«Munduko askotariko lekuetan oinarritutako 72 kontakizun barnebiltzen ditu»

GORKA ANDRAKA, LEMOIZTARRA



# hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO  
**e-posta:** hiruka@hiruka.eus  
**Posta-kutxa:** 171  
**Telefonoa:** 944 911 337  
**Publizitatea:** Idoia Lorente  
**Erredakzio-burua:** Unai Brea  
**Erredakzioa:** Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia  
**Argazkiak:** Hodei Torres  
**Testuen orrazketa:** Jon Gastelurrutia  
**Diseinua:** Artefakto  
**Kudeaketa:** Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea  
**Kolaboratzaileak:** Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetaña  
**Filmazioa eta Inprimategia:** BEPSA  
**Lege-gordailua:** BI-2022-2014  
**ISSN:** 2386-98-95  
**Ale-kopurua:** 8.000  
**CC-BY-SA**

## Erakunde laguntzaileak



# Bizkaia

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

## HIRUKAlagunen txokoa

# Non dago? Lehiaketa

**Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Safari ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu**

Apirilaren 29ko umeentzako ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, apirilaren 20a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.



## Apirileko saria



Getxoko eta Erandioko bertsolaritza saioez gozatzeko sarrera bikoitzak

**Bertsozale Elkarteari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.**

Zozketan parte hartzeko, bidali apirilaren 30a (astelehena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

# Zelan egin HIRUKAlagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)

**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Sudokua

		3			9			
4		7	8		2			
	3	7			6			
				9				
			1			9		
6					7	4	3	
5					4		8	
4	1				6	3		
				8				

			3					1
			5				7	
		8						
9								2
	8		6	1	3			
		7	4					
			1			3		
6	7	4						9
					9	6		7

## Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

7	8	9	6	4	2	5	1	3
6	1	2	5	8	3	4	7	9
5	4	3	7	1	6	9	2	8
8	3	5	2	4	9	7	1	6
4	6	7	3	1	9	2	5	8
9	2	1	8	7	5	3	4	6
3	9	1	4	6	3	8	5	7
2	9	6	7	3	4	8	5	1

5	1	6	8	2	4	3	7	9
8	4	1	7	9	6	5	2	3
3	7	4	2	5	8	9	6	1
6	9	1	7	2	5	8	3	4
7	2	5	4	3	9	1	8	6
4	9	1	5	4	6	3	2	7
2	3	8	7	9	1	5	6	4
4	9	7	5	8	6	3	2	1
5	1	6	3	2	4	8	9	7

## Hitza emanda

### Ihesaldia

*Errefuxiatuena  
edo Sarrirena;  
euskal iheslariak  
munduan barrena;  
Mikel Laboarena  
zein Puigdemontena...  
Hitz bat da, ihesbide  
asko dituen!*



**IÑIGO KORTAZAR ELÍAS**  
Algorta





# Akarlandan

## ERANDIO 2018 • Apirilaren 22an, igandea



**Apirilak 20,**  
ostirala

**MURSEGO**  
kantautorea

Ordua: 19:30  
Tokia: Motagane txakolina

**Apirilak 21,**  
larunbata

**ASTRABUDUAN,**  
Mendiguren plaza

19:00 Plaza dantzak  
(Trabudurekin)

21:15 Garilak 26ren  
kolaborazioa

**21:30 ETS**  
**EN TOL**  
**SARMIENTO**

**Apirilak 22,**  
igandea

**Bertsolariak:**  
**Fredi eta Xabi Paia**

**AUTO BARIK  
HOBETO!  
ERABILI  
ERANDIOBUSA**

- 11:00 Musika Eskolako Trikitilariak
- 12:00 Dantzak. Uztargi, Goi-Alde, Trabudu
- 13:30 Bertsolariak
- 15:00 Herri bazkaria
- 16:00 Roberto Etxebarria eta Kantagunea
- 17:00 Umeen erromeria
- 18:00 Erromeria, Luhartz taldearekin

**eta egunean zehar...**

- Umeentzako jolasak, puzgarriak
- Abentura parkea
- Txosna, musika, taloak...

AUTORELIZAPENAK:

**BERBOTS**  
Erandioko  
Euskaltzaleen  
Topagunea



Uztargi  
Goi-Alde  
Trabudu  
Kilkirtxu  
Musika Eskolako trikitilari  
eta pandero joleak  
Kantagunea

Ikastetxeetako  
guraso elkarteak  
Auzokide elkarteak  
**ALBE**



... eta beste hainbat

Erandio  
Elizateko  
Udala

